

# B

BARREN

TOKIKOM

## Karakateko Igoerak 20 urte



# Laster ezkontza gehigarria

Publizitatea egin nahi baduzu  
jarri gurekin harremanetan



**943 744 112**  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



## OSASUN GIDA



### OPTIKAK

**65\07**

**IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

**183\12**

**UZURI**

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

### HORTZ KLINIKAK

**171\12**

**LEKU EDER**

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
[lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

### OTORRINOLARINGOLOGIA

**183\12**

**UZURI**

- Entzumen protesia **BERRIA!**
- Tapoiak neurritza (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

### FISIOTERAPIA

**271\12**

**AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA**

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

**177\12**

**fisio&más**

**Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea**

- Esku-terapia.
- E.P.I.® (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
- + Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, es-triak)

**Osasunerako ariketa agin-dua**  
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

**Entrenamendu gidatua**

**Pilates makinak**  
(erabilitazioa)  
3 pertsona gehien.

**Txirrindulariaren biomekani-ka** (kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191  
667 953 628



Amaia  
Larrañaga

J.Luis, urtean zehar zenbat egun berezi edo ospatzeko izaten diren: "Amaren eguna", "hiesaren aurkako eguna", "emakumeengana indarkeriari aurre egiteko eguna", "maiteminduen eguna" ... euren batzuk kontsumitzeko aproposak, beste batzuk ohartu ere egin gabe pasatzen direnak, betiere,

norberaren arabera, jakina, eta gaurkoan horietako baten inguruan jardungo dut. Izan ere, hortxe da abenduaren 3a, EUSKARA-REN EGUNA, bai hau letra larriz eta kakotxik gabe, apropos, hala sentitzen dudalako.

## "Euskara ez dadila izan egun bateko kontua, baizik egunerokoa eta uneorokoa"

Aurten, egun horretan, herri askotan, geurean barne, EUSKARAK 365 EGUN leloa ikusi eta irakurri ahal izango dugu nonahi, zeren eta euskaldun askok horixe nahi baitugu, alegia, euskara ez dadila izan egun bateko kontua, baizik egunerokoa eta uneorokoa. Horrek ez du esan nahi abenduaren 3an ospatuko ez dugunik, ez horixe! Sarri, egoera beltz ikusi arren, zer ospatua izan badugulako, besteak beste, horrenbeste kontrako haizek jota ere, luzaroan, oraindik ere bizirik gaudelako, eta geurekin batera euskara; izan ere, euskara geu gara.

"Eguneroko" hitzak, askotan, alde beltza-edo ekartzen digu gogorra, hau da, lana, astirik eza, ardura..., baina egun hori, hots, Euskara-ren eguna, egunerokoa izateak, askori behintzat, bizipoza, ilusioa, magia, umore ona... ere ekartzen dizkigu, eta horren alde jarduten dugu, sentsazio horiez guztiez gain, eskubidea ere badelako.

J.Luis, goian aipatu dut egun hauetako batzuk kontsumitzeko aproposak izaten direla, eta honen harira, begira zelako lelo ederra irakurri dudan nonbaiten: Kontsumitu euskara, doan da eta denontzako lain dago. Kisiak jota gauden garaian, errezeta bikaina: doan eta denontzako, alegia, ez dugu inor bazterten, nahi duenak badaki zer egin. Zer diozu, J.Luis?



Jose Luis  
Azpillaga

Norbaitek esana da debaldeko gauzak di-rela onenak eta inportanteenak bizitza honetan. Hori dela eta, doako gauzen zerrenda bat egitea bururatu zait. Hara zer ateratza: airea, eguzkia, itzala, lainoak, ura, euria, edurra, mendiak, bideak, bidezidorrak, basoak, hondartzak, loreak, sagarrak, gaztainak, hurrak, intxaurrak, perretxikoak, ibaiak, itsasoak, lakuak, zelaia, txoriak, basoko animaliak, arrainak, lagunak, maitasuna, irribarreak, mu-  
xuak, besarkadak, laztanak, dantza, korrika egitea,

ibiltzea, lo egitea, amets egitea, familia, hizkuntza, abestiak, musika, festak, kontzertuak, jolasak, ipuinak, bertsoak, poesia (Arestiren olerkia datorkit burura: "*Nire poesia oso merkea da, herriaren ahotik jaso nuen debalde, eta debalde ematen diot herriaren belarri...*"). Ez dago gaizki, ezta, Amaia? Baina badira gauza gehiago ere: mintzalagunak, aldizkariak: BARREN, The Balde (aldizkari harrigarria, euskaraz eta ingelesez ateratzen dena eta dohainik banatzen dena); doako dendak ere ba omen dira; truke-azokak, denbora-bankuak... Zerrenda nahi beste luza liteke.

## "Noizbait ikasiko ahal dugu, Amaia, bizitzako gauzarik ederrak zaintzen!"

Argi dago dirua paretik kenduta ere, hainbat gauza eder ere egon badaudela mundu honetan. Ez da gauza txarra, ez, krisi-garai penagarri hauetan! Beraz, euskara ere doakoa dela gogoraraztea ondo iruditzen zait. Gainera, urtean 365 egunetan!

Txarrena da beste norbaitek ere esana dela doako gauzak ez di-rela apreziatzen. Zoritxarrez, horrela da askotan. Debaldekoea bada -pentsatzen dugu- ez da hain ona izango; dohainik bada, hurrengo batean ere izango dut hori lortzeko aukera. Eta, zoritxarrez, doako gauzak gutxietsi eta zaintzen ez baditugu, hondatu egiten dira. Hor ditugu aire-kutsadura, ibai zikinak... . Noizbait ikasiko ahal dugu, Amaia, bizitzako gauzarik ederrenak zaintzen eta estimatzen!



**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON  
VILARCHAO**

San Roke, 7 beheko  
Poi. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 748 670

**DEKORAZIOA**

Korpo eta baimen-estadua  
Zoluzio ezarria  
Laketak: eguz, aluminio, PVC  
Pintak: orokor



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA 50 ANI

## Laguntzaileak:



EUSKO LEGBILTZARIA

elgoibar  
bizitzeko



MENDIARROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Itsasoa osatu

Mila iturri ezberdinetatik gatozen tantak gara. Iturburu ezberdinetatik abiatu ginen, eta banatu-tako ibaien emaria handitu genuen. Egun, ordea, aniztasunetik indarrak bildu ditugu itsasoa ostu asmoz. Bizi dugun abagune historikoak hala eskatzen du.

Jendartearen gehiengoarentzat eskaera saihestezina da hau, plaza eta kale hauetan bizi eta amets egiten dugun herritarrontzat, hurrengo belaunaldientzat egoera hobe bat nahi dugunontzat. Etorkizunera begiratzen dugu. Eta bide horretan, lehen erronka urtetako gatazkak utzitako zauriak itxi eta sortutako sufrimendua leuntzea da.

Hortaz, pertsona guztien giza eskubideen errespetua zein preso, iheslari eta euren inguru sozialari aplikatzen zaizkien salbuespeneko neurriak amaitzea eskatzen dugu.

Indarrean dagoen espetxe politika traba handia baita konponbidea eta bakea erdiesteko, eta egoera iraultzeko, jendartearen inplikazioari beharrezkoa deritzogu.

Lelo argi batean bat egiten duten tantak gara: "Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira". Oinarrizko hiru aldarriekin bat egiten duen itsasoa gara: sakabanaketaren amaiera, gaixotasun larriak pairatzen dituzten presoan askatasuna eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren sententziaren aplikazioa. Eskari hauek biltzen gaituzte, ekimen honetan parte hartzen dugun pertsonen iraganari buruz izan ditzakegun ikuspegi kritikoetatik harago. Gure jarduerak ez baitu ahazten ezta gutxiesten gure jendartearen baitan pertsona gehiegik pairatu behar izan duen sufrimendu anitzak.

Tanta gisara, itsasoa osatu nahi dugu. Aniztasunetik abiatuta, urrats eta energia positiboak eskatzen dituen iritzi egoerarekin bat egiten dugu. Finean, konponbidearen aldeko jarrera proaktiboak eskatzen dugu. Eta adostasun sozial hau, ura bezala, bizitza iturri bilakatu nahi dugu. Bakearen itsasoa egin eta oztopoak gaindituko dituen uholdea.

Tanta izanik, jarrera alderdikoia baztertu eta komuneko espazioak eraikitzen ditugu. Egungo arazoetan baino gehiago gure seme-alabentzako soluzioetan pentsatzen dugu. Ideia horrekin bat egitera gonbidatzen zaitugu, zure hiri, herri,

auzo edo esparru sozial edo profesionaletik abiatuta. Izan ere, guztion energia eta parte hartzearekin gauzak hobera aldatzen hasiko garela-koan gaude. Tantaz tanta, itsasoa gara.

Tantaz tanta ☞

### Erotismoaren izenean

*Bere ezpainen / kafe egin berriaren zapoak / zoratu egiten nau... / are gehiago / izara artera itzultzen garenean.* Idatzi zuen Paddy Rekaldek. Gero Angel Errok: *Gutaz itsasoak / zer isildu badu: / dastatu dizudan / larru puskatxoak / gatz zaporea du.*

Edo akordatu naiz Miren Agur Meabetaz: *Euriak zelaia erauzten zion busti hotsa / zeure hatzek atera zioten nire sexuari. / Armiar-ma-sarean zehar ostadarra ikusten nuen / zuk bultza eta bultza / ezerezen kontra egiten zenidan bitartean.*

Akordatu naiz Itxaro Borda eta Jon Mirandetaz. Etorri zait burura Gose musika taldeko Ines eszenatoki gainean trikitia jotzen hanka zabalik, bi eskuetako bat trikititik aldentu eta nola laztantzen duen bere alua lehenengo, titi bat eta bestea gero, nola begiratzen dion denbora guzti horretan publikoko honi eta hari zuzen, zorrotz, publikoko anonimo hori intimidatu artean.

Eta akordatu naiz azkeneko larru-jotzearekin, edo lagunak kontatu zidan une goxo harekin. Kanean nindoala ezezagun batekin gurutzatu nuen begirada harekin, edo tabernetako komunekin. Zigarroaren kearekin, kremailearekin, ulertzen ez dudana hizkuntza horrekin, laztan batekin... Erotismoak badi-tuelako mila momentu, mila aurpegi, hitz, gorputz, isilune, izen. Mila modutara bizi daitekeelako erotismoa, eta nik erotismoa euskaraz bizitzea erabaki dudalako akordatu nintzen guzti horiekin joan den astean. Nik erotismoa ere euskaraz bizitzea erabaki dudana bezala, Elgoibarko tabernarietara atea itxi diotelako euskarari, eta antza, erotismoaren izenean.

Oraindik ikasteko asko dago hemen. Oraindik ez omen daki jendeak, zenbat gozatu daitekeen mingainarekin! Erakusteko prest naukazue.

Ainhoa Mendibil Artetxe ☞





**Merkatu Plazan igogailua behar da:** “Merkatu Plazan behar-beharrezkoa da igogailua jartzea. Eguenetan baserritarrak etortzen dira euren produktuak saltzera, eta bigarren solairura igotzeko zailtasun handiak dituzte herritar askok, adinekoek, bereziki. Hori dela-eta, jende asko ez da joaten merkatu plazara erosketak egitera. Igogailuak denoi egingo liguke mesede, bai erosleei eta baita saltzaileei ere. Orain arte karga jasogailua erabiltzen genuen, baina orain giltza behar da hori erabiltzeko, eta ez dago bigarren solairura erosketa-karroarekin igotzeko inolako erraztasunik”. Hirigintza arduradunak esandakoaren arabera, karga jasogailua ezin dute herritarrek erabili, eta segurtasun neurri bezala erabaki dute giltza jartzea. Agintariek ere badakite merkatu plazan igogailua behar dela, eta aurreikusita dute obrak egitea, baina une honetan proiektua geldirik dago”.

**Herrian zehar dauden uralitazko teilatuak kendu egin beharko lirateke:** “Uralitazko teilatuek amiantoa dute, eta hori oso kaltegarria da osasunarentzat. Ahal den heinean, teilatu horiek berritu egin beharko liratekeela iruditzen zait”.

**Trafiko debekuak errespetatu egin behar dira:** “Mendarokolkastola gaineko parketik Txirristaka taberna pareko zebrabidera iritsita, ohituta geunden behera begiratzeko, autoak etor daitezkeelako, baina tarteka goitik behera ere hasi dira etortzen. Badakigu gure ardura ere badela bi aldeetara begiratzeko, baina berez, autoek debekatuta dute Trinitate paretik Txirristaka parera goitik behera etortzea. Beraz, errespetatu ditzagun debekuak, zerbaite-tarako daude eta”.



**Eskerrik asko Zubi Ondo elkartekoei:** “Pastoral de la salud taldeko kideek eskerrak eman nahi dizkiete Zubi Ondo elkartekoei, Gaixoen Eskualdeko Topaketa egiteko lokala uzteagatik”.

**Txalo bat Kultura Sailari, eta bereziki, zinemako arduradunei:** “Txalo bero bat merezi dute zineko arduradunek, zapatu arratsaldean zinema komertzialeko saio bat jatorrizko bertsioan ikusteko aukera eskaini zigutelako. Mila esker”.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112



**Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari papera eskuratu nahi duzue?**

**1€**

BARREN astekarian  
eta  
Elgoibarko Izarra  
Kultur Elkartearen  
salgai

ELGOIBARKO IZARRA 50

## Erabilitako jostailuak biltzeko kanpaina jarri du martxan Gurutze Gorriak

Eguberrietan ahalik eta jende gehienari opariak egitea da kanpainaren helburua

**G**urutze Gorriak erabilitako jostailuak eta opariak batuko ditu, *Gabonetan denok jolasten dugu* lelopean. Etxean erabili ez eta egoera onean dauden jostailuak bakarrik jasoko dituzte, eta ez dituzte onartuko zikinak edo egoera onean ez daudenak. Era berean, tresna elektronikoak, gerra jostailuak eta jan-tziak ere ez dira onartuko. Bai, ordea, janzteko osagarriak: gerrikoak, eraztunak, belarritakoak, fularrak, zapiak, poltsak, eskumuturrekoak, lepokoak, bufandak, eskularruak, diru-zorroak... Eskola-materiala, kirola egiteko materiala, mugikortasunarekin zerikusia duten jolasak eta adin guztietako jendearentzat egokiak diren mahai-jokoak ere onartuko dituzte. Eskolako Agenda 21 egitasmoaren barruan kokatu dute kanpaina, eta zailtasun ekonomikoak dituzten Debabarrenako familien artean banatuko dituzte jostailuak Eguberrietan.

### Hiru egunetan egingo dute bilketa

Kanpainen parte hartu nahi dutenek hiru egun izango dituzte opariak Gurutze Gorriak Aita Agirre plazan duen lokalera era-



mateko: Azaroaren 22an, 18:00etatik 20:00etara, azaroaren 23an, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, eta azaroaren 24an, 11:00etatik 13:00etara.

### Perretxikoei buruzko azalpenak jaso dituzte Elgoibarko ikasleek



Karakate mikologia elkarteak perretxiko erakusketa egin zuen joan zen domekan, eta astelehenean, berriz, Ikastolako eta Herri Eskolako umeei eman zizkieten perretxikoen gaineko azalpenak. Inguruko mendietan batutako perretxikoak jarri zituzten ikusgai, eta haiei buruzko informazioa eman zieten Lehen Hezkuntzako ikasleei.

### Hezibi programakoek kurtso amaierako diploma jaso dute

Heziketa Zikloetako Hezibi programako ikasleek azaroaren 4an bukatu zuten euren prestakuntza, eta kurtso amaierako diplomak jaso dituzte aste honetan. Ikasi eta lan sistemaren bidez, ikasleek eskola eta enpresa uztartzen dituzte. Lehen promozio honetan 18 ikaslek eta 11 enpresak hartu dute parte. Programa honen indarguneak aztertu dituzte, eta era berean, aurrera begira hobetu beharrikoeak ere identifikatu dituzte arduradunek.





## Ekitaldia **Elgoibar erotikoa**

Arg.: Aitor



Asteburu euritsua izan zen arren, tenperaturak gora egin zuen Elgoibarren. Eguenetik zapatura bitartean, pintxo-pote erotikoa antolatu zuten tabernariak, eta 27 pintxo desberdin dastatzeko aukera izan zuten herritarrek. Bigarren urtez antolatu dute egitasmoa, eta tabernariak pozik agertu dira, oro har, herritarrek emandako erantzunarekin. Tuppersex saioetan jende askok hartu zuen parte, eta streaptease emanaldiak ere arrakastuak izan zirela aipatu dute. Hala ere, Maalan jarritako karpan ez zela jende asko ibili aipatu dute antolatzaileek. Datorren urtera begira zer egingo duten erabakitzeko dute oraindik, baina horrelako egitasmoak antolatzearen alde agertu dira ostalariak.

## Irudia **Memoriaren Eguna**



Memoriaren Eguna izendatu zuen Eusko Legebiltzarrak azaroaren 10a 2010ean, eta Elgoibarko Udalak bat egin zuen Jaurilaritzak adostu zuen adierazpen instituzionalarekin. Hori dela-eta, aurten ere gogoan izan du Udalak Memoriaren Eguna, eta indarkeriaren eta terrorismoaren biktimak guztien oroimenez, udaletxe-ko balkoia apainduta egon da asteburu osoan. Elgoibarko Udalak azken hiru urteetan ospatu du Memoriaren Eguna azaroaren 10ean, eta aurten ere gogoan izan dituzte biktimak.

## **Autodefentsa feminista tailerra antolatu du Berdintasun Sailak**

Udaleko Berdintasun Sailak autodefentsa feministari buruzko tailerra antolatu du azaroaren 18, 19 eta 20rako. Erasoak identifikatzea eta indarkeriaren jatorria eta dituen ondorioak aztertzea izango da ikastaroaren helburua. Autoestimua eta autodefentsa landuko dira, teknika fisiko eta psikologikoak erabiliz, eta konfiantza eta segurtasuna sustatuko dira. 18:00etatik 21:00etara izango dira saioak, Arreiturre institutuan. Ikastaroa doan izango da. Interesatuak 943 741 050 telefonoan eman dezakete izena, edo bestela, Herritarren Arreta Bulegoan.

## **80 urtetik gorakoen bazkarirako izena emateko azken eguna: azaroak 29a**

Abenduaren 10ean hasiko da Jubilatuen Astea, eta urtero bezala, hainbat ekintza antolatu ditu Jubilatuen Biltokiak. Horien artean, 80 urtetik gorakoen bazkaria egingo dute abenduaren 12an, eta interesatuak azaroaren 29ra arte dute izena emateko aukera. Ekitaldi horren barruan, aurten urrezko ezteiak beteko dituzten bikoteei omenaldia egingo diete, eta bikote horiek azaroaren 22rako eman beharko dute izena. Horrez gain, txokolata jana, Gelatxo orkestrarekin dantzaldia, Gabonetako otarren zozketa eta beste hainbat sorpresa izango dituzte.

## **'Erresilientzia eta gaitza' tailerra eskainiko dute hilaren 20an eta 27an**

Defibel fibromialgia eta astenia kronikodunen elkarteak *erresilientzia eta gaitza* izeneko ikastaroa antolatu du. Ana Perez Lizarraga psikologo eta psikoterapeutak gidatuko ditu saioak. Azken bi saioak hilaren 20an eta 27an eskainiko ditu, 17:00etatik aurrera, Elgoibarko Kultur Etxean.

# VANESA HORTAS

**AUTOENPLEGURAKO TEKNIKARIA  
DEBEGESAN**

‘Elgoibar Ekinean’ egitasmoa jarri dute martxan Debegesak eta Elgoibarko Udalak, autoenplegua eta ekintzailetasuna sustatzeko. Enpresa edo negozio propioa martxan jarri nahi dutenei laguntzeko asmoz antolatu dute tailerra, eta horretarako, sei saio eskainiko dituzte. Ekintzailetasunaz hitz egingo dute, besteak beste, eta negozio ideiak gauzatzeko giltzak eskainiko dituzte. Era berean, merkatua aztertzen, eta bideragarritasun planak egiten lagunduko diete parte hartzen dutenei. Momentuz zortzi lagunek eman dute izena. Gazteak dira guztiak, eta langabezia daude. Debegesako arduradunen iritziz, langabeziari aurre egiteko bidea ematen du autoenpleguak. Iaz, 22 enpresa berri sortu zituzten Debabarrenean, eta horietako lau Elgoibarren jarri zituzten martxan.

**“Langabeziari  
aurre egiteko  
modua da  
autoenplegua”**





## **Elgoibar Ekinean tailerra antolatu duzue. Zein da egitasmoaren helburua?**

Autoenplegua eta ekintzailetasuna sustatzea da gure helburua. Debegesatik eskualderako lan egiten dugu, etengabe autoenplegua sustatzeko, baina kasu honetan, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean, herrira begirako tailerra antolatu dugu. Joan zen hilean Mutrikun egin genuen, eta Eibarren ere egingo dugu. Herriz herri moldatuko dugu apur bat tailerra.

**“Sortzen diren enpresen %80k bost urtetik gora irauten dute”**

### **Zer eskainiko duzue tailer horretan?**

Ikastaroak sei saio izango ditu, eta besteak beste, enpresa bat zer den, ekintzaile izatea zer den, negozio ideiak garatzen, bideragarritasun planak egiten eta merkatua aztertzen irakatsiko diegu izena ematen dutenei. Horrek ez du esan nahi lan hori guztia geuk egingo dugunik, baizik eta hori egiteko bidea erakutsiko diegula. Egiten ikastea da gure sistema; hau da, norberak praktikan jarri ikasiko ditu eman beharreko pausoak zein diren. Askotan negozio ideia bat eduki arren, merkatua aztertzean konturatzen zara ez dela hain ideia ona, eta moldatu egin behar dela. Ideia horiek garatzen lagunduko diegu. Era berean, motibazioa eta sormena ere landuko ditugu, eta beldurrak eta kezak gainditzeko ere lagunduko diegu, hein batean.

### **Autoenplegua eta ekintzailetasuna aipatu dituzu. Bi termino horiek batera doaz?**

Bai. Pertsona ekintzaileak, normalean, autoenplegurako joera izaten du. Nolabait esateko, norberak bere buruarentzat sortzen duen negozioa da autoenplegua. Langabeziari aurre egiteko bidea da autoenplegua.

### **Zer da ekintzaile izatea?**

Pertsona ekintzaileak balore jakin batzuk ditu, besteak beste, inizatiba handiko pertsonak dira. Konstantzia erakusten dutenak, nekaezinak, nolabait esateko. Sorme-

na ere garrantzitsua da, baina hori landu egin daiteke.

### **Zein da horrelako ikastaroetan izena ematen dutenen profila?**

Kasu honetan zortzi lagunek eman dute izena: hiru emakumezko eta bost gizonetzko. 25 eta 50 urte bitarteko pertsona gazteak dira, eta denak langabezian daude. Batzuek ikasketak bukatu berri dituzte, eta beste batzuek lana galdu dute, krisiaren ondorioz. Formazio aldetik prestatuta daude guztiak, eta denen helburua lana bilatzea da. Batzuk negozio ideia batekin etorri dira, baina beste batzuk ez. Saio batean landuko dugu sormena, ideiak aurkitzeko, eta beste saio batean ideia horiek negozio ideia bilakatzen saiatuko gara. Helburua enpresak, edo behintzat proiektuak sortzea da. Taldean, elkarlanean, beti irteten dira ideia berriak, eta autoenplegurako aukerak handitu egiten dira. Bi lagunek, bi ideia uztartuz, elkarrekin abiatu dezakete negozioa, elkarlanean eta lankidetzan. Hori aberasgarria da.

### **Nolako emaitzak ematen dituzte horrelako tailerrek?**

Debegesak lan handia egiten du autoenplegua sustatzeko, eta iaz esate baterako, 46 proiektu landu genituen. Horietatik 22 negozio sortu ziren, eta 33 lanpostu berri. Elgoibarren, lau negozio berri jarri ziren martxan 2012an, eta hortik lau lanpostu sortu ziren. Azken urteetan behera egin du kopuruak, baina esan behar dugu Debarrenean sortzen diren negozioek bizirapen luzea dutela, eta Euskal Herriko batezbestekoaren gainetik gaudela. Sortzen diren enpresen %80k bost urtetik gora irauten dute, eta behin bost urte pasatakoan ez dira enpresa berri kontsideratzen.

### **Zein da negozio berriak martxan jartzeko arazorik handiena?**

Finantzazioa. Jende askok baditu ideiak, bideragarriak direnak, baina enpresa martxan jartzeko finantzazioa lortzea zaila da. Bankuek abal handiak eskatzen dituzte, eta horrek atzera botatzen du jendea. Badaude beste aukera batzuk, bazkide kapitalista bat aurkitzea esaterako, hau da, negozio horretan sinisten duen norbaitek dirua jartzea. Negozio bat sortzeko ahalik eta arrisku gutxien hartzea komeni da. Orain, Ekintzaileentzako Lege berria ateratu dute, eta horri esker, erraztasun gehiago

dago. Argi izan behar da negozio bat martxan jartzen denean lan asko egin behar dela eta hasieran behintzat, gastu asko izango direla. Gerora etorriko dira irabaziak.

### **Zein motako negozioak jartzen dira martxan, bereziki?**

Gehienak zerbitzuekin lotutako negozioak izaten dira. Debarrenean industria sektorea da aberatsena eta aberastasun handiena sortzen duena, baina industria negozioak martxan jartzeko diru asko behar da. Normalean dendak edo aholkularitza enpresak sortzen ditu jendeak. Zerbitzuetan jende askok egiten du lan gure eskualdean, baina Debarrenen motorra industria da, eta Debegesan ere badaukagu industriara bideratutako lan-lerro bat. Aurten Elgoibarren sortu da industria sektoreko negozio bat. IMHn ikasitakoak ziren guztiak, industria oso gertutik bizi zutenak eta horren aldeko apustua egin dute.


**“Negozio berri bat martxan jartzen duenak irabazteko gehiago dauka galtzeko baino”**

### **Krisi garaian gaudela kontuan hartuta, negozio edo enpresa berriak sortzeko une ona dela esango zenuke?**

Bai, baina garai honetan hobeto pentsatu behar dira gauzak. Ideia berritzaileak aurkitzea zaila da, zerbait desberdina asmatzea gaur egun ez da erraza, eta negozio berri bati merkatuan tokia aurkitzea gero eta zailagoa da, baina posible da. Debegesan doan ematen ditugu laguntza eta zerbitzuak, eta behin martxan jarrita, aholkularitza lanak ere egiten ditugu. Iaz, esaterako, 172 kontsulta erantzun genituen. Debegesatik animatu nahi dugu jendea negozio propioak sortzera, nire ustez, negozio berri bat martxan jartzen duenak irabazteko gehiago dauka galtzeko baino.

Urrian...

## JAIOAKOAK



**Alain Zubia Ruiz de Gauna** Urriak 8  
Ander eta Ainhoa



**Ion Del Pino Segundo** Urriak 1  
Isabel eta Aitor



**Olatz Garmendia Jauregi** Urriak 8  
Aitzol eta Amaia



**Eñaut Zinkunegi Sanchez** Urriak 17  
Joseba eta Elsa



**Nahikari Altzibar Mendikute** Urriak 27  
Eneko eta Gorane

**Asier Landa Sastre** Urriak 10  
Aitor eta Amaia

**Ines Zabala De La Cruz** Urriak 16  
Julen eta Anahi

**Mohamma Dhaseeb Iqbal** Urriak 20  
Mubashar eta Sobia Noren

**Julene Sanchez Merino** Urriak 22  
Juan Jose eta Tamara

**Unai Astigarraga Etxeberria** Urriak 30  
Ion eta Mireia

**Unai Sanchez Azpiazu** Urriak 3  
Jabier eta Agurtzane

## EZKONDUTAKOAK

- **Xabier Esnaola** eta **Miren Uribe** Urriak 4

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira  
**943 744 112** telefonora edo bidali e-postaz  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbide elektronikora.

## HILDAKOAK

**Mari Luz Sanz Etxeberria** • 87 urte • Urriak 4  
**Gerald Morisset Boisvert** • 76 urte • Urriak 15  
**Juan Revert Garcia** • 74 urte • Urriak 15  
**Nerea Aranburu Arrate** • 52 urte • Urriak 20  
**Elena Aizpurua Astigarraga** • 81 urte • Urriak 21  
**Manuel Maria Aranberri Elduayen** • 79 urte • Urriak 22  
**Esteban Gonzalez Garcia** • 85 urte • Urriak 27  
**Petronio Dominguez Colliga** • 91 urte • Urriak 27

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA  
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**

**Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR**

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

## ARANTZA PALACIOS URDIAIN

2013ko urriaren 31n hil zen, 58 urte zituela.

*“Betiko izango zaitugu gogoan”*

Oihaneren Zarauzko lagunak





## Erretratu zaharra



**1958**

Artetxe kalean bizi direnek eta han bizi izandakoek afaria egingo dute as-  
teburu honetan, eta ospakizun horren  
harira, Artetxen ateratako erretratu za-  
har bat ekarri digute BARRENEKO erre-  
dakziora. Artetxeko probaleku zaharre-  
an ateratako argazkia da, hain zuzen  
ere. Garai hartan idi-dema handiak  
egiten ziren Artetxen, eta jende asko  
biltzen zen han. Auzotarrek sarri jolas-  
ten zuten ingurune horretan, eta argaz-  
kian ageri diren ume horiek ere jolase-  
an dihardute.

**Ezkerretik eskumara:** Ramon Zu-  
biaurre eta Mari Karmen eta Jose Mari  
Gurrutxaga.



ESKERTZA

**FELIX MIER PEREZ**

*"Lili"*

2013ko azaroaren 13an hil zen, 70 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola  
hileta elizkizunetara agertu izana.



# Karakatera begira

**Hoge urte beteko dira bihar Morkaikok eta Urgazik estreinako Karakateko Igoera antolatu zutela, baina izatez, zaharragokoa du historia. 1981. urteko San Anton egunez zortzi elgoibartarrek elkarri jokaturako apustuan du, hein batean, sorburua. Gaur, hogeigarren urteurrenaren bezperan, lau antxitxikariren bizipenak jaso ditu BARRENEK.**

**Ainara Argoitia**

Afaria jokatu zuten, nor azkarrago iritsi udaletxe aurretik Karakateko tontorrera. 40 urtez gorako zortzi lagun ziren, bi taldetan banatuta. Inazio Garate *Animarte*, Joxe Mari Aranzamendi *Katei*, Jose Inazio Ulazia eta Jeronimo Bollar batetik, eta Eulogio Arizmendi *Untzon*, Santiago Zigorraga *Ipintza*, Bizente Lazkano *Zartxuitza* eta Pedro Ezkurra bestetik. Txikiteoan ari zirela sortu zen jokoa, lagun arteko giro horretan, eta bi hilabete geroagorako jarri zuten eguna, San Anton egunerako. Epailea ere lotu zuten azkenerako: Ego-Toki elkarteko Fermin Arrese.

Itxuraz, aurreko urtean, 1980an, Pedro Etxeberria elgoibartarra 38 minutu eta 32

segundoan igo zen Karakatera korrika, eta denbora hori ondu bai edo ez zebiltzan koadrilan. Berotu ziren, eta hasi ziren entrenatzen ere. Desafio hark sekulako oihartzuna izan zuen herrian eta jendetza handia batu zen egunean bertan, zortzi korrikalariak ikustera. Han zirenetako batzuen arabera, ehundik gora lagun elkartu ziren Karakateko gainean, egun hotz hartan. Hotza egin baitzuen. “Hotz handia”. Txanpona bota zuten plazan nor aurretik abiatu erabakitze-ko eta A taldeak irabazi zuen, baina beste- en erreferentziak izan aldera, atzetik irtetea erabaki zuten taldekideek. Eta balio izan zien estrategiak. Inazio Garate izan zen tontorrera iristen lehena (42:28), eta bere taldeak irabazi zuen jokoa. Taldekide guz-

tien denborak batuta, 3:12:54ko denbora egin zuten, eta bost minutu eskaseko aldea aterazieten aurkariei (3:17:06). Apustuaren ostean, Gure Bide elkartean bazkaldu zuten guztiek elkarrekin.

Joan dira urte batzuk ordutik, eta Karakateko Igoerak indar handia hartu du. Morkaikok antolatzen du gaur egun lasterketa, eta urtetik urtera, parte hartzaile kopurua gora egiten ari da. Iaz, esate baterako, 95 lagunek parte hartu zuten. Iñigo Lariz elgoibartarra (28:20) eta Nerea Amilibia aiarra (37:02) gailendu ziren, eta gutxigatik ez zuen ondu Larizek ordura arteko errekorra. Gizonezkoetan, Oier Ariznabarretarena da orain arteko denborarik onena.



Karakateko Igoera “oso berezia” zaiola esan du Maite Maiorak. “Karakate bera da mendi berezia; mendi gogorra da, baina zuzenean hartuta, denbora gutxian iristen za-

ra tontorrera, eta goian korrika egiteko sekulako aukera ematen dizu”, zehaztu du. Bi aldiz parte hartu du Karakateko Igoeran, eta bietan irabazi du. Lehenengoz duela hiru urte parte hartu zuen, eta errekorra ezarri zuen emakumezkoetan. Oroitzapen polita gordezten du egun hartatik. “Izugarria izan zen. Beti da berezia, hala ere. Elgoibarko lasterketa da, herrikoa esan dezagun, eta jende asko batzen da, bereziki goian. Bukaera aldera jendeak sortzen duen pasilo moduko hori izugarria da”, aitortu du. Konparazioetara ere ausartu da: “Beste maila batean, jakina, lasterketa bera ere beste maila batekoa delako, baina Aizkorriko maratoian Santi Spirituseko aldapan sortzen den giroaren antzekoa da”.

Bidea markatuta ez egotea da Karakate-

ko Igoeraren bereizgarrietako bat, eta Maiorak aitortu du horrek berak sortzen diela korrikalarietako ezinegon bat, lasterka irten aurretik beti izan ohi denari gehitu beharrekoa. “Ez duzu jakitzen. Batzuetan bide luzeagoa bide azkarragoa ere izaten da, eta baita alderantziz ere, beraz beti izaten duzu zailtza hori”, esan du. Ez du ematen, aukera txarra egin duenik orain artekoan, baina. Horrekin lotuta anekdotarik ere badu, hala ere. Duela bi urte, orpoz orpo jarraitu zuen Nerea Amilibiak goraino, biderik ez zekielako, eta azkeneko unean noiz erasoa joko zion beldur- rrekin egin zuen Maiorak tontorrera arteko bidea. Amilibia ez zegoen, hala ere, berak uste bezain sendo. Aitortu du, egutegiz, fexa “arraro” xamarrean tokatzen dela Karaka-

## MAITE MAIORA (Mendaro, 1980)



teko lgoera, Donostiako maratontik oso gertu, adibidez, eta besteak beste horregatik, ez duela urteren batean egin. Sekula ez da espreski prestatu duen lasterketa bat izan Karakatekoa. Ez du beharrik. Horren harira esan du sasoi dagoenak erraz onduko duela bere errekorra. "Ondu beharra dago". Bera ere tentatuta egon da froga egitera. Ezinduta dago orain, sorbaldako ebakuntza

bat tarteko, baina esan du kirolfanoan sartu aurretik egon zela bere kasa errekorra ontzera irteteko berotuta ere. "Nahi nuen, baina ebakuntza egin aurreko sasoi horretan animoz baxu xamar ere egon nintzen, eta laga nuen. Dena den, badago nire errekorra ondutzea", errepikatu du. Datorren astean maratona jokatu behar duelako izan ez balitz, Leire Agirrezabala berak aukera handia izan-

go lukeela uste du, baita Oihana Kortazarrek ere, etorriko balitz. "Leire Fernandez gaztea ere sasoi onean dago, eta asko kosta gabe egingo luke", esan du. Aurten ezingo du parte hartu, baina ikustera joango da. "Ez naiz trankil egongo besteak korrika ikusten, badakidalako inbidia pasatuko dudala, baina ez joanda okerrago pasatuko nuke, eta joango naiz", bota du.



## JOSE MARI FERNANDEZ 'SUSO' (Elgoibar, 1961)

"Flojo nabil. Aurten lehenengo emakumezkoaren aurretik sartzen banaiz, konforme. [Maitel] Maiorak parte hartzen badu, esate baterako, jai daukat", esan du. Aitortu du lau aldiz probatu duela aurten, azkeneko aste honetan bertan, eta egin duen euri guztia-ekin, zaila dagoela gora egiten, "lokatzean hondoratzen direlako oinak". Gogotsu dago, hala ere. "Karakateko lgoera berezia da niretzat, eta horrexegatik irtengo naiz aurten hogeigarren aldiz", esan du.

Tontorrean pilotzen den jendetza izugarria dela esan du, eta bera moduko korrikalari-ek izugarri estimatzen dutela han goian jasotzen dituzten animoak. "Zaleek bai dutela meritua. Egon egin behar da han goian, eta are gehiago egunotan daukagun eguraldi honekin", gehitu du horren harira. 51 urte be-

teko ditu aurten Susok, eta ondo gogoan dauzka Karakateko lgoerako aurreneko edizio haiek. "Iñaki Konde, Jose Antonio Agote eta hirurok ibiltzen ginen. Karakateko lgoera antolatu aurretik ere ni sarri igotzen nintzen Karakatera, eta horrexegatik, beharbada, hasieratik izan da berezia niretzat proba hau". Gauzak "itzel" aldatu direla dio, baina: "Gu hasi ginenean 37 minutuan zeukan errekorra Untzillak, eta pentsa gaur egun non jarri duen. Iñigo Lariz eta hauekin ez dago lehiatzerik. Beste maila batean daude. Aurten ere jo-koa egingo nuke berak irabaziko duela, nahiz kostako zaion baldintza hauetan errekorra hobetzea". Berak aitortu du ez dela Karakateko lgoera espreski prestatzen duen zerbait, baina saiatzen dela aurrez osteratazuk egiten, sasoi dagoen ikusteko.

**G**aur arte jokatu diren Karakateko lgoera guztietan parte hartu du, eta aurten ere badu joateko asmoa. 29:43an dauka denborarik onena, eta saiatu, saiatuko den arren, zaila ikusten du jaistea, "aurten behintzat".



## JOSE MARI ETA PATXI ALBERDI (Azkoitia)

hartzen dutenen edo ikustera joaten direnen artean. 82 urte bete ditu aurten Jose Mari aita, eta beharbada horrexek, daukan adinak, egin du horren miretsia izatea korrikalarien eta zaleen artean. Duela sei urte hartu zuten parte estreinakoz Karakateko lgoeran Alberdi aita-semeek, eta azkeneko sei aldietan jokatu dute lasterketa. Aurten, belauna minduta du Jose Mari, eta oraindik ez dakite parte hartzeko moduan izango diren, baina irtetektan, garbi dute denbora ontzera irtengo direla. "Gure aita oso egoskorra da, eta 82 urte izan arren, sasoi dago. Egutero egiten du lau bat orduko mendi ibilaldia. Kirolari sena du, gainera, eta

mantentzen du gaztetako lehiarako zera hori", adierazi du Patxi.

Karakate ondo ezagutzen du Jose Mari. Sorraluzen lan egin zuen erretiroa hartu bitartean, eta lanetik irten ostean beti egiten zuen osteratxoaren bat mendira. Mendiko lasterketetan ibili gabea zen, hala ere, semeak erronka bota zionean: "Tentatua ibiltzen zen, baina ez zuen bakarrik joan nahi eta biok joango ginela esan nion. Lan-ean elgoibartar bat ere banuen, eta hark eman zidan lasterketaren berri". Patxi bera errepideko antxitikaria da. 35 bat urte badihardu han eta hemen korrika, baina sekula ez zuen mendiko lasterketa batean

**J**ose Mari eta Patxi Alberdi aita-semeak ezagunak dira Karakateko lgoeran parte

parte hartu. Aitarekin lehiatu zen lehenengo, Elgoibarren.

Berezia da lasterketa. Bidea ez dago markatuta, eta horrek berak oso berezia egiten duela azaldu du. Horrek amorrarazi ere egin ditu, hala ere, urteren batean. Duela bi urte gertatu zitzaiena ekarri du gogora: "Plazatik zalaparta batean irteten dira korrikalari guztiak eta gu atzerago gelditu ginen. Bidea nondik zen galdetu genion gazte bati eta biderik motzena ezkerretik zela esan zigun. Eta galdu ginen mendian. Sekulako amorrua hartu genuen, esfortzu handia egin genuela-ko alfer-alferrik, baina irten aurretik ere bada-kigu horixe dela lasterketa honen bereizga-

rrietako bat, eta hori ezin dela aldatu".

Proba "gogorra" dela esan du Patxik. Prestaketa bereziren bat jarraitzen duten galdetuta, ezetz dio. "Ni korrika ibiltzen naiz, eta aita asko ibiltzen da mendian, oinez. Egunean bertan joaten gara gu, eta saiatzen gara aurreko urtekoa ontzen. Aitarentzat ez da esfortzu ona. Gure aita diesela da, eta proba luzeetarako prestatuago dago. Aurten, esate baterako, Zazpi Kurutzetako ibilaldia egin nahi du, 62 bat kilometroko proba, eta Gabon ostean hasiko gara entrenatzen". Nolanahi ere, esfortzuak "merezi" duela dio. Hitz onak baino ez ditu antolatzaileentzat eta ikustera eta animoak

ematera joaten direnentzat. "Plazan bertan ere, jende asko gerturatzten zaio aitari animoak ematera-eta, eta hori izugarri estimatzen dugu. Goian pilatzen den jendetzaz zer esan! Izugarria da. Haiek guztiak gabe, lasterketa hau ez litzateke ezer", esan du.

Errekorraz ere hitz egin du Patxik. Garbi dauka Oier Ariznabarretak ezarritako errekorra ontzea badagoela, "ondo prestatutako jende asko dagoelako", baina horretarako baldintza batzuk eman behar direla dio, eta zaila ikusten du aurten gertatzea. "Egin duen euri guztiarekin eta egongo den lokatz guztiarekin zaila egongo da aurrera egiteko".



## IÑIGO LARIZ (Elgoibar, 1983)

sio ere bihurtzen da sarri: "Herriko lasterketetan munduko txapelketa batean baino urduriago jartzen naiz sarri. Ardura handia da. Herrikoia izanda, nahi duzu irabaztea edo gutxienez ondo egitea, eta badakizu, gainera, jende asko zure zain dagoela. Izen bat badakugu eta maila eman beharra daukagu. Jendeak asko espero du gugandik eta presio hori eramaten jakin behar da".

2007. urtean hartu zuen parte lehenengo Karakateko Igoeran, eta ordutik jokatu diren guztietan irten da. Iaz, errekorra ontzetik oso gertu egon zen, gainera. Askok hobetu zuela ere pentsatu zuten tontorra ikutu zuenean, eta zalaparta handia sortu zen antena inguru horretan. Baina, ez. Oier Ariznabarretak egindako denborarik onenetik hiru segundora gelditu zen Lariz. Badauka noiz-bait hobetzeko itxaropena, hala ere. Are, helburua hori dela dio. "800 metroko lasterketa batean, hiru segundo lehenengotik azkenera dagoen tarte izan daiteke, baina Karakateko Igoeran ez da hainbeste. Zailagoa da errekor hori egiteko baldintzak ematea. Hego haizea egiten badu eta 25 gradu egiten baditu, adibidez, segundo bat jaistea ere asko da, baina baldintzak ematen badira, erraz lortu daiteke", azaldu du. Egunotan egin duen euriarekin, baina, zaila ikusten du aurten errekorra ontzea.

Sasoiko dator, hala ere. Aurten, irailetik hona, kilometro bertikaletan ibili da, eta esan du Espainiako txapelketa dela-eta, ez duela alde batera laga espreski kilometro bertikaletarako egiten duen prestaketa. Garbi dauka Karakateko Igoera presatu nahi duenak jarraitu beharreko entrenamendua horixe dela: aldapan gora intentsitate handiko serieak egitea. Irailurria artean egon diren kilometro bertikalak direla-eta, "sasoi puntua luzatu" duela dio, eta indartsu dagoela.

Ilusioz dago bere jendearen aurrean lehiatzeko. Karakateko azkeneko maldan sortzen den giroa zirraragarria dela adierazi du: "Maratoian kentzen, niri beste inon ez zait tokatu halako jendetza hori ikustea, hor sentitzen dena sentitzea. Izugarria da". Esker oneko berbak baino ez ditu Larizek antolatzaileentzat eta egun horretan animoak ematera joaten direnentzat. "Euskal Herrian oso mendiko lasterketa gutxi egiten zirenean hasi ziren hau antolatzen eta aurten hogeitaz beteko dituzte. Bada zerbait! Urte amaiera aldera jokatzen diren lasterketen artean, erreferentziazkoa bihurtu da Karakateko Igoera gure inguruan, eta hori ez da kasualitatez izaten. Gauzak ondo egin diren seinale da hori".

**K**arakateko Igoera oso-oso berezia da" esan du birritan pentsatu gabe Iñigo Larizek. "Mendiko lasterketekin izan dudana lehenengo erreferentzia izan da niretzat Karakateko Igoera, herriko lasterketa da, eta gainera, gorako bidea ez dago markatuta. Ono pentsatu beharra dago, beraz, norberak zein bide hartuko duen eta besteek zein aukeratu duten, estrategia fintzeko. Egia da ia denok bide berdina aukeratzen dugula, baina aurten sorpresaren bat egon daiteke", zehaztu du segidan.

Hamaika lasterketetan parte hartutakoa da Lariz, hamaika podium zapaldutakoa, baina Karakateko Igoerak, gaur oraindik ere, urduritzen duela aitortu du. Bere ibilbideak ez du inor oharkabea laga, eta ospe hori pre-



## 73 elgoibartar eta 24 mendaroar Behobia-Donostian

**D**omekan jokatu zen Behobia-Donostia lasterketa. 23.637 lagunek hartu zuten parte guztira, eta horien artean, 74 elgoibartar eta 24 mendaroar izan ziren. Gure ordezkarien artean Alberto Revuelta izan zen azkarrena (Saillapen nagusiko 27. postuan amaitu zuen proba). Igor Elizburu elgoibartarrak ere hartu zuen parte ezinduen kategorian, 1:03:23 denborarekin 13. postuan iritsi zen helmugara.

ELGOIBARTAR ETA MENDAROARREN SAILKAPENA

Izen-abizenak	Postua	Denbora	Izen-abizenak	Postua	Denbora
1. Alberto Revuelta Garcia	27	01:08:14	51. Maite Landaburu Azkarreta	12.116	01:42:38
2. Gorka De La Horra Irastorza	373	01:16:45	52. Ivan Camacho Arrizabalaga	12.416	01:43:06
3. Iñigo Salegi Aldabe	375	01:16:46	53. Eduardo Armendia Azaldegi	14.476	01:46:34
4. Jose Antonio Ruiz Del Rey	722	01:19:17	54. Jorge Elkoro-Iribe Intxausti	14.477	01:46:34
5. Iñigo Iturbe Ortiz de Zarate	939	01:20:33	55. Aitor Treviño Goikuria	14.778	01:47:07
6. Julen Azpiazu Garay	1.535	01:23:11	56. Ismene Fulgencio Elizburu	14.832	01:47:13
7. Iker Jausoro Murgiondo	1.765	01:23:59	57. Gorka Zabala Zabaleta	14.992	01:47:27
8. Gurutz Quintano Agirrezabal	1.808	01:24:07	58. Andrea Arriola Ferrer	15.017	01:47:29
9. Iker Amutxastegi Fernandez	1.850	01:24:12	59. Julio Cuesta Sanz	15.079	01:47:37
10. Oier Irazabal Garcilandia	2.225	01:25:31	60. Alfonso Leo Chavez	15.086	01:47:38
11. Fernando Calvo Minchinela	2.235	01:25:32	61. Jose Ignacio Jauregi Mujika	15.754	01:48:58
12. Imanol Santos Urain	2.565	01:26:23	62. Jon Beneitez Gaztelu	16.273	01:49:58
13. Miguel Anjel Montes Crespo	3.067	01:27:36	63. Arritxu Zialtzeta Aduriz	16.275	01:49:59
14. Lander Azpiazu Garay	3.147	01:27:47	64. Jon Ander Cerron Garcia	16.450	01:50:23
15. Urko Sanchez San Martin	3.197	01:27:53	65. Ana Casquero Gonzalez	16.957	01:51:25
16. Ainhoa Lendinez Garate	3.223	01:27:56	66. Borja Martinez Rey	17.217	01:51:59
17. Gorka Garaizabal Agirregomezkorta	3.291	01:28:04	67. Santiago Fernandez Perez	18.250	01:54:13
18. Angel Eguren Belaustegi	4.132	01:29:41	68. Kepa Mendikute Agirregomezkorta	19.491	01:57:24
19. Juan Mari Mendizabal Alberdi	4.272	01:29:54	69. Ion Perez Arizmendi	19.584	01:57:39
20. Sebas Etxaniz Alkorta	4.276	01:29:54	70. Susana Azpilikueta Gurrutxaga	19.778	01:58:09
21. Jose Ignacio Ortiz de Urbina Segurola	5.184	01:31:39	71. Josu Zialtzeta Aduriz	20.077	01:59:04
22. Joseba Sagasta Anton	5.375	01:32:02	72. Azucena Sanz Mahave	20.165	01:59:20
23. Jonathan Aldazabal Villagarcia	5.691	01:32:37	73. Eider Iriondo Ansola	21.154	02:02:52
24. Imanol Iparragirre Arretxea	5.928	01:33:01			
25. Pedro Iparragirre Sopelana	5.982	01:33:06	MENDARO		
26. Juanjo Roldan Merino	6.054	01:33:15	1. Aritz Ruiz De La Torre Acha	71	01:10:52
27. Bruno Guerrero Labanda	6.826	01:34:30	2. Gotzon Zulaika Arakistain	83	01:11:24
28. Jose Alberto Iriondo Elustondo	6.972	01:31:18	3. Alonso Gomez Viña	131	01:13:00
29. Mikel Kortabitarte Berasaluze	7.355	01:35:26	4. Haritz Goikoetxea Aranberri	210	01:14:43
30. Jose Ramon Lopez Erauskin	7.473	01:35:36	5. Ander Zulaika Arakistain	686	01:19:06
31. Gotzon Gurrutxaga Bengoetxea	7.885	01:36:15	6. Israel Soto Calderon	1.706	01:23:46
32. Guillermo Ezenarro Iso	8.086	01:36:33	7. Silver Rodriguez Salgado	1.760	01:23:58
33. Aitor Cornejo Larrañaga	8.152	01:36:38	8. Isaak Bergaretxe Kerejeta	2.074	01:25:02
34. Iosu Iriondo Elorza	8.203	01:36:43	9. Igor Ezenarro Arriola	2.226	01:25:31
35. Javier Hernando Albert	8.264	01:36:49	10. David Garcia Fernandez	4.058	01:29:32
36. Humberto Fernandez Gonzalez	8.304	01:36:52	11. Jose Maria Cinto Gallardo	5.677	01:32:35
37. Arnaldo Otegi Mondragon	8.477	01:37:04	12. Aitzol Urain Epelde	6.564	01:34:04
38. Carlos Ayesta Arruza	8.774	01:37:32	13. Aitor Larrañaga Deriozpide	6.807	01:34:29
39. Jon Peli Uriguén Ansola	8.805	01:37:35	14. Iñigo De La Iglesia Ugartemendia	7.547	01:35:44
40. Mikel Arriola Etxeberria	8.904	01:37:44	15. Egoitz Mendikute Ferreira	8.306	01:36:52
41. Lourdes San Martin Andonegi	9.518	01:38:36	16. Julen Arrillaga Mugertza	9.745	01:38:55
42. Eduardo Varona Abaitua	9.714	01:38:53	17. Ramon Ugarte Olaetxea	10.379	01:39:52
43. Asier Arrieta Vallejo	9.764	01:38:56	18. Jose Ramon Cabello Olmo	10.551	01:40:09
44. Pilar Arriola Diez	9.767	01:38:56	19. Jon Mendikute Arriola	13.723	01:45:18
45. Agurtzane Arriola Diez	10.561	01:40:10	20. Imanol Esnaola Alba	13.894	01:45:36
46. Miguel Angel Castro Garrues	11.115	01:40:58	21. Roberto Mangana Miguel	14.104	01:45:56
47. Asier Lorenzo Gorrotxategi	11.355	01:41:21	22. Aitor Etxeberria Perez	15.233	01:47:56
48. Luis Maria Arriola Laramendi	11.541	01:41:40	23. Luis Miguel Jimenez Rojo	16.346	01:50:08
49. Iker Panizo Diego	12.055	01:42:31	24. Joseba Gonzalez Herrera	16.374	01:50:12
50. Aitor Zubiaurre Lizarralde	12.111	01:42:37			

## Kilometro bertikalen Espainiako Txapelketa irabazi du Iñigo Larizek

Faboritoei aurea hartu, eta 40 minutu azpitik egin zuen bakarra izan zen

**M**arka guztiak hausten ari da Iñigo Lariz elgoibartarra. Urrian, kilometro bertikalen Euskal Herriko zirkuitoa irabazi zuen bigarrenagoz, eta domekan, Espainiako Txapelketa, faborito nagusiei aurea hartuta. Finestraten jokatu zen lasterketa, Alacanten, Benidormetik gertu.

300dik gora lagunek parte hartu zuten lasterketan, tartean inguruko espezialista onenak. Han ziren, esate baterako, Raul Garcia Castan Espainiako txapelketa irabazitakoa eta Agusti Roc kilometro bertikalen munduko txapelduna izandakoa. Banan-banan egin zuten kronoigoera, erlojuaren kontra. Halakoetan ohi denez, faboritoak izan ziren irteten azkenak, eta beraz, haien erreferentziarik gabe egin zuen korrika Iñigo Larizek. "Nire karrera egitea beste erremediorik ez nuen izan: topera irten eta ahal nuen moduan indarrak gorde". Finestrat herritik abiatu ziren, eta 3,6 kilometroan 1.040 metro igo zituzten Puig Campana mendi tontorreraino (1.410 metro).

Proba gogorra egin zitzaioala aitortu du



Arg.: Mychip.es

Larizek, eta zailena harri solteak zeuden tartea egin zitzaioala: "Harri solteek ez ziguten lagatzen erritmo egokia mantentzen eta askotan galdu nuen pausoa". Hala ere, bera iritsi zen lehenengoa tontorrera. 39 minutu eta 26 segundoan egin zuen ibilbidea, eta bera izan zen 40 minututik behera egin zuen korrikalari bakarra. Raul Garcia Castan sailkatu zen

bigarren, 40:06ko denborarekin, eta Agusti Roc egin zuen hirugarren, 40:22ko denborarekin. Onenen artean badela nor erakutsi zuen elgoibartarrak.

Aurtengoz, bihar emango die Larizek azken mendiko lasterketei, Karakateko Igoeran. Ez du mendia lagako, hala ere, eski denboraldia hasiko baitu aurki.

## Derbia irabazita, Somos Eibar eskubaloit taldearen bolada ona eten du Alcorta Forging Group-ek



Partidarik galdu gabe etorri ziren Somos Eibar eskubaloit taldeko mutiak Elgoibarrera, orain arte jokatu ziren zazpirak irabazi bati-tuzte, baina punturik gabe itzuli ziren etxera. Lehen Nazional mailako C multzoko liderrak ziren eibartarrak eta dira oraindik ere, eta sailkapenean zortzigarren postuan zeuden elgoibartarrak, baina ez zen alderik igarri bien artean. Gogor lehiatu ziren Alcorta Group-ekoak, eta markagailuan aurretik joan ziren uneoro. Hamahiruna berdinduta iritsi ziren atsedenaldira, eta partida amaitzeko minutu eta erdi falta zirenean hogeita bosna zihoazen markagailuan. Asier Cordonek erabaki zuen partida azkeneko minutuan sartutako bi goli esker. Hain zuzen ere, Asier Cordon eta Imanol Garziandia izan ziren Alcorta taldeko goleatzaile nagusiak.

Alcortak zortzigarren jarraitzen du sailkapen nagusian, laugarren dagoen Zaragozako A.D. Stadium taldeak duen puntu kopuru be-  
rarekin: bederatzi.



# Azaroaren 23an jokatu da Mendaron Alkortako Igoera

Parot doktrinaren kontra antolatzen dute lasterketa

Egutegia errepikatuko da. Karakateko Igoeraren osteko zapatuan, azaroaren 23an, jokatu da Mendaron Alkortako Igoera. 10:30ean irtengo dira korrikalariak udaletxe aurretik, eta 4,7 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Alkorta baserri pareraino. Errepidez egingo dute ibilbide osoa, eta tartean, %11ren bueltako pendizak ere gainditu beharko dituzte. Izenemateak egunean bertan egin beharko dira, irten baino ordu erdi aurretik, eta 2 euro kobratuko dute. Bukaeran, haurrentakoa egongo da Alkortara igotzen diren guztientzat.

197/ 2006 doktrinaren kontra antolatzen dute lasterketa hau, eta hain justu ere, Parot doktrina ezarrita preso duten Jokin Urain mendaroarren jaiotetxean bukatzen da [2009ko irailaren 7an, 23 urteko espetxe zi-



gorra bete ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalak 197/06 doktrina ezarri eta kartzelaldia 2016 urtera arte luzatu zion].

Iaz, Iñigo Lariz elgoibartarra (21:07) eta Nerea Amilibia aiarra (27:5) nagusitu ziren. Gizonezkoetan, Iñigo Lazkanok dauka errekorra (20:24) eta emakumezkoetan Amilibiak berak (25:49).

## Gaintxipixara irteera antolatu dute domekarako

Gaintxipixa mendira irteera antolatu du Morkaiko mendizale elkarteak domekarako, Herri Eskolakoekin eta Elgoibar Ikastolakoekin elkarlanean. 8:20an batuko dira Elgoibarko tren geltokian, trenez joateko Mendaroraino. Sei kilometro inguruko bidea egingo dute handik Gaintxipixa tontorreraino (621 metro). Irteera ume zein nagusientzat antolatu dute, baina antolatzaileek ohartarazi dute ezingo direla umeak bakarrik bidali. Irteera horretarako ez da beharrezkoa Morkaikoen izena ematea, baina bai ohikoa den bezala Herri Eskolan edota Elgoibar Ikastolan aurrez jakinaraztea. Eguraldi txarra egi ten badu, Gaintxipixara igo ordez, Kilimoi bailaran zehar egingo dute ibilaldia. 13:50eko trenean itzuliko dira gero Elgoibarrera.

## Zabalik dago datorren urteko Ehunmiliak Ultratrail lasterketan izena emateko epea

2014ko uztailaren 11tik 13ra bitartean egingo dute Ehunmiliak Ultratrail probaren hurrengo edizioa, eta dagoeneko zabalduta dute izena emateko epea. Aurreko urteetan bezala, izenematea Internet bidez bakarrik egin ahal izango da aurten ere, lasterketaren webgune ofizialean: [www.ehunmilak.com](http://www.ehunmilak.com). Korrikalariak 168 km-ko ibilbidea eta 11.000 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute.

Era berean, Goierriko bi handiak proba ere egun horietan egingo dute, eta webgune horretan bertan eman daiteke izena. Lasterketa honek 88 kilometroko ibilbidea eta 6.000 metroko desnibel positiboa izango ditu. Proba batean zein bestean, 500 lagunek har dezakete parte gehienez. Izena ematen den epearen arabera, prezioa garestiagoa izango da. Izena emateko epea ekainaren 3an amaituko da.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 0 – Portugalete 1  
Mondragon 4 – C.D.Elgoibar 2 (Erregionala)  
Gasteizko neskak 4 – C.D.Elgoibar 1 (Neskak)  
C.D.Elgoibar 2 – Lengokoak 0 (Jubenilak)  
Arrasate 1 – C.D.Elgoibar 1 (Kadete A)  
C.D.Elgoibar 2 – Urki 2 (Kadete B)  
C.D.Elgoibar 3 – Urki 2 (Infantil Txiki)  
Anaitasuna 3 – C.D.Elgoibar 2 (Alebina)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 7 – Xota B 4 (Bigarren B Maila)  
Laskorain 2 – King Kong kafetegia 3 (Jubenilak)

### SASKIBALOIA

Beasain 62 – Viento Sur 53 (Bigarren B Maila)

### ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 27 – Somos Eibar 25 (Sen. mut.)  
Aiala Zarautz 23 – Lauko Elg. 24 (Sen. neska.)  
Ordizia 32 – Gabaz Elg. 27 (Sen. mut.)  
Astigarraga Elg. 23 – Bera Bera 23 (Jub. neska.)  
Hondarribi 21 – Beristain Elg. 24 (Jub. mut.)  
Tecnifuelle Elg. 23 – Bera Bera 23 (Jub. neska.)  
Irungo Gaztiak 22 – Pneumax Elg. 37 (Kad. mut.)  
Tolosa 11 – Txariduna Elg. 26 (Kad. mut.)  
Urola 7 – Murgil Elg. 19 (Sen. mut.)  
Bankoa Elg. 30 – Bergara 24 (Inf. mut.)  
Deca Elg. 32 – Pulpo 29 (Inf. mut.)  
Cometel Elg. 19 – Ikus Elg. 14 (Inf. neska.)

### PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa (eskuz)  
Lagunak 22 – Arrasate 12 (3. mailako nagusiak)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 16  
12:00 Elgoibar – Zarautz (Jub.)  
16:30 Elgoibar – Peña Athletic (Neskak)

### SASKIBALOIA

Domeka, 17  
12:15 Viento Sur – Mondragon Unibertsitatea

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 16  
11:30 Txariduna Elg. – Jesus Obrero (Kad. mut.)  
13:00 Aterpe Elg. – Cometel (Inf. neska.)  
16:00 Murgil Elg. – Eibar (Kad. neska.)  
17:45 Lauko Elg. – Dosa (Sen. neska.)  
19:30 Alkorta Elg. – Zaragoza (Sen. mut.)  
Domeka, 17  
10:15 Gabaz Elg. – Amenabar (Sen. mut.)

### ESKUBALOIA (Mendaron)

Zapatua, 16  
12:45 Ikus Elg. – Zarautz (Inf. neska.)

### PILOTA

Barxakua, 15 (palaz)  
21:30 Lagunak (1) – Usurbil (2. mailako nagusiak)  
22:15 Lagunak (2) – Altzatara (2. mailako nagusiak)  
Zapatua, 16 (eskuz)  
11:00 Lagunak – Ziortza (2. mailako kadeteak)  
11:45 Lagunak – Gailurrerantz (2. mailako jub.)

## 40. urtemugaren harira, dantza jaialdia antolatu du Haritz dantzari taldeak azaroaren 23rako

Euskal Herriko sei dantza talde gonbidatu dituzte jaialdira

**O**spakizunen urtea du Haritz dantzari taldeak. 40 urte joan dira taldea jaio zenetik, eta horren aitzakian, hainbat ekintza antolatu dituzte aurretik. Mozorroen inguruko hitzaldia eskaini zuten Oier Araolazak, Zuberoara irteera antolatu zuten maskaradak ikusteko, eta beste zenbait ekitaldiren ostean, eta urtea borobildu aldera, dantza jaialdia antolatu dute orain azaroaren 23rako. Euskal Herriko sei dantza talde gonbidatu dituzte dantzan egitera: Debako Gure Kai, Iruñeako Duguna, Eibarko Kezka, Galdakaoko Andra Mari, Donostiako Argia eta Portugaleteko Elai Alai taldea.

Kalegoen plazan egingo da jaialdia, 12:00etatik aurrera. Antolatzaileek jakinarazi dute, baina, euria egiten badu Herriko Antzokira aldatuko dutela lekuz, eta sarre-

ra doan izango dela. Jaialdiaren aurretik, kalejiran irteetako asmoa dute, baina ez dute zehaztu nondik hasiko diren. Euririk egingo ez balu, Maala edo King Kong ingurutik plazaraino joatea aztertzen ari dira, eta bestela, plazatik Herriko Antzokiraino.

Jaialdiaren barruan, gonbidatutako dantza talde bakoitzak pare bat dantza dantzatuko ditu. Debakoek, esate baterako, Debako San Roke dantza eta *Jorra* dantza egingo dituzte; Iruñeako Duguna taldekoek Nafarroako dantzak ekarriko dituzte, Eibarko Kezka dantza taldeak *Arrateko Amaren ezpata-dantza* dantzatuko du, eta Galdakaoko Andra Mari dantza taldeak Bizkaiko dantzak ekarriko ditu. Donostiako Argia taldeak, berriz, *Jauzi bat* eta Galaena dantzatuko ditu, eta Portu-



galeteko Elai Alai talde entzutetsuak Zuberoako dantzak eskainiko dizkigu.

## Lou Topet talde zarautzarrak kontzertua eskainiko du gaur zortzi, Kultur Etxeko sotoan



Sinuosek kontzertua antolatu du gaur zortzirako, hilaren 22rako, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan (23:00). Lou Topet talde zarautzarra ekarriko dute oraingoan, eta sarrerak hiru euroan jarriko dituzte salgai, egunean bertan. Lau lagunek osatzen dute Lou Topet taldea: Oier Arantzanbalek (ahotsa eta gitarra akustikoa), Oihan Larrañagak (baxua), Unai Martinezek (gitarra elektrikoa) eta Ander Zulaikak (bateria) eta folk doinuak sortzen dituzte. Hasier Etxeberria idazle elgoibartarrari zor diote izena. Pierre Topet *Etxahun*, XIX.mendeko bertsolari zuberoarrari egiten dio erreferentzia Topet horrek (Barkoxe, Zuberoa, 1786-1862), eta Oier Arantzabal taldeko ahotsak esana duenez, ikutu anglosaxoia emateko gehitu zioten gero *lou* hitza. Oier Arantzabal bera da taldea ezagutaraztera eman duten kantu gehienegilea, baina *Esnatu dira* diskoan, bakarra da berea: *Irauli II*. Amaia Iturriotz bertsolari zumaia-erak egin die *Hautsiak* eta Jon Benito idazle zarautzarrarenak dira *Jakin nahi nuke* eta diskoan jaso ez zituzten beste bi: *Esan ez etortzeko* eta *Nire katea*.

### ‘Bikokote’ haurrentzako antzerkia, domekan, Herriko Antzokian

Lanku produkzioak-ek *Bikokote* antzezlan taularatuko du domekan, azaroaren 17an, Elgoibarko Herriko Antzokian (16:30). Haurrentzako antzerkia da *Bikokote*. 1822. urteko istorio bat kontatzen du. Piruli eta Txupi izeneko bi pertsonaia uharte bakarti batera iritsiko dira, baleak arrantzatzen ari direla. Uhartean bizi dira, baina gaur egungo Euskal Herriaren berri ere badute, uhartera urak ekartzen dien objektuei esker. Hala, barruko irrikak bultzatuta, Euskal Herrira bueltatzea erabakitzen dute. Aldatuta topatuko dute Euskal Herria, eta hamaika istorio pasatuko zaizkie. Gustatuko ote zaie Euskal Herria?

Sarrerak egunean bertan erosi beharko dira. Haurrek 3,5 euro ordaindu beharko dituzte, eta helduek 5 euro.



# ‘Goierri marrazkitan’ liburua argitaratu du Julen Zabaletak, Josetxo Zufiaurrerekin batera

Goierriko 300 eraikin eta monumentu historikoren marrazkiak egin ditu Zabaletak

**E**rretiroa aspaldi hartu zuen, baina ez dago geldirik egoteko Julen Zabaleta *Yulen* (Elgoibar, 1921). Hamaika historia-liburu ilustratu ditu, 5.000 marrazki bueltan pilatu ditu etxean, eta *Goierri marrazkitan* liburua argitaratu berri du, Josetxo Zufiaurre Goyarekin batera. Beasaingo paperak bildumako 21. alea da lan hau, baina oraingoan Beasaingo historia ez ezik Goierri “tradizionala” osatzen duten hogeita hiru herrietako historiaren zertzeladak batu dituzte [Euskadiko Administrazio politikoak, behinola, Goierri Ormaiztegi eta Legorreta artean dauden hemezortzi herriek osatzen dutela onartu zuen, zonalde garaiari Urola Garaia izendapena emanez. Hala ere, tradizionalki, 23 izan dira Goierriko zonaldean aipatu izan diren herriak].

Datu historikoak batu ditu Josetxo Zufiaurrek, eta hogeita hiru herri horietako eraikin eta monumentu esanguratsuenak marraztu ditu Julenek, tintaz eta lumaz. Eraikin historikoen marrazkiak dira [300 in-



guru], batzuk jada desagertutako eraikinenak, eta beste batzuk gaur arte zutik iraun dutenenak. Goierriko iragana eta oraina erretratua osatu dute bien artean.



## JJ Vaquero umoregileak bakarrikzeta saioa eskainiko du gaur gauean, Herriko Antzokian

JJ Vaquero umoregile ezaguna Elgoibarko Herriko Antzokian izango da gaur, Lanbroa kafetegia antolatutako umore gauean. Telebistak eman du ezagutzera JJ Vaquero, eta azkeneko sei urteetan alderik alde zeharkatu du Espainia bere umorezko bakarrikzeteekin. Paramount Comedy telebista kateko ohiko kolaboratzailea izateaz gainera, Protagonistas irratiaiko kolaboratzailea ere bada Gaztela eta Leongo Punto Radion. Era berean, El Hormiguero telebista saio ezaguneko kolaboratzailea eta gidoigilea da. Sarrerak gaur bertan erosteko aukera izango da, lehiatilan, 15 euroan.

## Santa Zeziliaren omenezko ekitaldiak egingo dira Elgoibarren egunean eta barixakuan

Musikarien zaindariaren omenez hainbat ekitaldi antolatu dituzte Elgoibarren datorren asterako. Egunean, hilaren 21ean, esate baterako, musika eskolako ikasleak kalejiran irtengo dira 18:45ean, eta ondoren, 19:30ean kontzertua eskainiko dute musika eskolan bertan. Hilaren 22an, berriz, Elgoibar Ikastolako umeak irtengo dira kalera. 8:30ean batuko dira Kalegoen plazan eta handik ikastolara arteko bidea egingo dute, instrumentuak joaz.

## Genero indarkeriaren aurkako asteburua, Mendaroko Gaztelekuan

Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna dela-eta, emakumeen kontrako indarkeria salatze-ko ekintzak antolatu dituzte Mendaroko Gaztelekuan hurrengo astebururako. Ostirala eta larunbata bitartean, esate baterako, pankarta edo mural handi bat marraztuko dute gazteek, 18:00etatik 20:00etara bitartean, eta azaroaren 24an, domekan, gai honekin lotutako film bat ikusteko aukera izango dute. 18:00etan hasiko da emanaldia.

## Reflexoterapiari buruzko mintegia egingo dute bihar Aubixa baserrian

Aubixa baserrian mintegia antolatu dute biharko. Reflexoterapia, kromoterapia, hipnosi klinikoa eta mina arintzeko erremedio naturalak nola prestatu daitezkeen aztertuko dute, besteak beste. Manu Alvarado adituak eskainiko du mintegia, bi zapatutan. 14:30ean hasiko da saioa, eta 20:00etan amaituko da. Amaieran, norbaitek beharko balu doan jasoko du masajea. Interesatuak 25 euro ordaindu beharko dituzte saio bakoitzeko. Informaziorako: 617 439 851 / 943 741 909.

## LANA

### ESKAERA

- Klase partikularak ematen ditut, DBHko edozein irakasgaitan. Merke. ☎ **676 722 556**
- Neska eskaintzen da lanerako. Umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke, orduka. Haur Hezkuntzako titulua daukat. Esperientziaduna. ☎ **610 658 914 / 943 743 015**
- Neska eskaintzen da lanerako. Umeak edo nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Esperientziaduna. ☎ **690 925 929**
- Emakumea lan bila: adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan egingo nuke lan. Orduka edo interna. ☎ **642 609 678**
- Mutil arduratsua eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **606 072 354**
- Lizentziatua eskaintzen da klase partikularak emateko. Matematika, fisika, marrazketa... Euskaraz zein gaztelaniaz, banaka edo taldeka. DBH eta Batxilergo mailetan. ☎ **699 495 278**
- Emakumea eskaintzen da, geriatría ikasketekin. Adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 741 080**
- Gizonezkoa lan bila. Esperientzia handia igeltsero eta lorezain lanetan. ☎ **628 818 558**
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko, garbiketarako edo zerbitzari lanetarako. Interna ere bai. ☎ **633 781 038**

- Frantsesa, latina, euskera eta gaztelarako klaseak ematen ditut.

☎ **617 114 185**

- Emakumea lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest.

☎ **606 354 982**

- Neska eskaintzen da garbiketarako edo adinekoak zaintzeko. ☎ **616 457 254**

### ESKAITZA

- Pertsona arduratsua behar da bi ume zaintzeko. Goizez, 8:00-9:00, eta arratsaldean, 16:30-18:00. Euskaraz jakitea eskatzen da. ☎ **676 087 537**

## ETXEBIZITZAK

- Babes Ofizialeko Etxebizitza salgai Elgoibarren. Hiru logela, berogailua, trastelekua. ☎ **637 046 720 (Ander)**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **626 215 567**
- Emakumea pisu bila dabil. ☎ **630 410 294**
- Pisua alokatzen da. Bi logela, egongela handia, sukalde, igogailua, terraza eta ganbara. Altzariekin. ☎ **646 581 666**
- Etxea alokagai Deban. Bi logela altzariekin, berogailu zentrala logela guztietan. Hilabeteka alokatu daitenke. ☎ **669 339 529 (16:00etatik aurrera)**

## LOKALAK

- Lokala alokagai, San Roken. Leihate handiak, aparkatzeko leku egokia. Gazte nahiz elkarreentzako. ☎ **943 744 467 / 649 446 716**
- Gazteentzako lokala alokagai, Urazandin. Baimen guztiak Udai ordenantzara egokituta, alarma, bainugela, duxa. Bi gune ditu lokalak. ☎ **610 893 332 / 943 531 407**

## BESTELAKOAK

- 11 hilabeteko hispaniar arrazako txakurra galdu dut. San Pedron ikusi dute azkeneko. Norbaitek ikusi badu, deitu dezala, mesedez. ☎ **627 820 513 (Juan)**

## KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK

- 1974an jaio eta Ikastolan ikasitakoek 8. mailako afaria egingo dute azaroaren 30ean, Sigma jatetxean, 22:00etan. Izena emateko azken eguna, azaroaren 25a. 35 euro sartu behar dira Laboral Kutxako kontu korronte honetan: **3035 0007 23 0071033857**. ☎ **678 674 142 (Anjel) / 677 260 878 (Iñigo)**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarritz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarritz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar**

☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**- Gure etxepean ustez banketxe batena den lokal komertzial bat dago, eta urteetan ja-beek ez dituzte komunitateko gastuak ordaindu. Orain, obra handi bat egin behar dugu, eta bizilagun batzuek arazo honi lehenbailehen irtenbidea eman behar zaiola erabaki dugu. Zeintzuk pauso jarraitu behar ditugu?**

Egoera hori arautzeko, onena etxaldean administratzailearen bat kontratatzea duzue, azken batean lehendik dagoen zorrak erreklamatu behar dituzuelako. Horrezaz gain, etxe-jabeen batzordeak abokatu bat ere kontratatu beharko luke, epaitegira joan eta lokal horren jabetza norena den azter dezan. Epaitegian eskuratu beharreko dokumentazio guztia bildu beharko du abokatuak, jabetza Erregistroan zaila izango zaigulako behar ditugun datu guztiak eskuratzeko. Azkenik, komunitateak zuek guztion dokumentuak eta beharrezko duen informazio guztia jarri beharko dio eskura administratzaile horri, zorrak erreklamatu eta zorpetuari aurkeztu beharreko dokumentazio guztia aurkez diezaion. Hori gabe, zaila izango duzue zor dizueten dirua eskuratzeko.

**Gomendioa: Komenigarria da etxe-jabeen batzordeak urgentziatzeko neurriak hartzea, zorrak pilatu ez daitezen.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Colegio Vasco de Administradores de Finanzas






• Zorionak, **Naiara**, gure printzesa! Oso ondo pasatu genuen zure 7. urtebetetzean. Gurasoen eta etxekoien partez.



• Zorionak, **Ane**, gaur 15 urte egin dituzulako. Maitasunez, familiakoien eta bereziki, gurasoen eta Noraren partez. Egun polita pasala!



• Zorionak, **Julia**! Eskerririk asko zaren modukoa izateagatik.



• Zorionak, zure 12. urtebetetzean. **Zorione**, jarraitu horrela.




• Zorionak, **Nora**, igandean 5 urte beteko dituzulako! Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Haritz Azpiazu**, azaroaren 14an 12 urte bete dituzulako. Gurasoen, eta bereziki, Nagore eta Julenen partez.



• Zorionak, **Telmo**, txapeldun! 10 muxu handi, guapisimo!!



• Zorionak gure **Unai** txikiari, bere lehenengo urtebetetzean. Familiakoien, eta bereziki, Julenen partez.



• Zorionak, etxeko **txirindulariari eta printzesari**, 28 eta 5 urte egingo dituzuelako, ostiralean eta asteazkenean. Patxo pila bat etxeko guztien partez.

## OSPAKIZUNAK KINTOAK 1988



Oso ondo pasatu genuen! Ea hurrengoan ere berriz elkartzen garen.



Zoriondu ezazu **BARRENEN!**

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **4€** - Argazki bikoitza **6€** - Hirukoitza **8€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **12€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **3€** - Argazki bikoitza **5€** - Hirukoitza **7€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **10€**

Argazkiak **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, **12:00ak** baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



Azaroaren 19an  
**Ludok bidalitako eskutitza**  
irekiko dugu. Ea zein jolas  
proposatzen digun!

Hilabete honetako  
sukalde txokoa:  
**Crep opilak**



## 15 barixakua

### Bakarrizketa

20:30 JJ. Vaquero

Telebistako bakarrizketalari ezagunaren emanaldia. Herriko Antzokian.

### Zinema

21:30 Zine-forum

Haizea emakume taldeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 16 zapatua

### Kirola

11:00 Karakateko Igoera

Morkaikk antolatuta, Kalegoen plazatik irtengo dira korrikalariak.

### Mintegia

14:30 Reflexoterapia

Aubixa baserrian egingo dute mintegia.

## 17 domeka

### Kultura

16:30 'Bikokote'

Lanku produkzioak aurkeztuko du antzerkia, Herriko Antzokian.

## 19 martitzena

### Ikastaroa

18:00 'Elkar ondo trata dezagun'

Kalamua guraso elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Izena emateko: kalamua@goglegroups.com

## 20 eguztina

### Kirola

21:30 'Lehoinabarraren aztarna'

Morkaikk antolatutako mendi emanaldien barruan, Andoni Ormazabalek eskainiko du saioa. Musika Eskolako auditorioan.

## 21 eguztina

### Santa Zexilia

18:45 Kalejira

Musika Eskolako ikasleek kalejira egingo dute.

19:30 Kontzertua

Musika Eskolako ikasleen kontzertua eta diploma banaketa. Musika Eskolako auditorioan.

## 22 barixakua

### Santa Zexilia

8:30 Kalejira

Ikastolako ikasleek kalejira egingo dute, Kalegoen plazatik Ikastolaraino.

### «La gran familia española»

15, barixakua: 22:15

16, zapatua: 19:00/22:15

17, domeka: 19:00/22:15



### «La gran familia española»

Zuzendaria: Daniel Sanchez. Espainia, 2013. Iraupena: 101 min. Komedia. Aktoreak: Antonio de la Torre, Quim Gutiérrez, Verónica Echegui, Miquel Fernández. Hegoafrikako munduko futbol txapelketako finala jokatu zen une berean, ezkontza bat ospatu zuten bertan. Herrialdea futbolak hartu zuenean, familia honek ere bizitzako partida garrantzitsua jokatu beharko du. Irabazi egingo dute? Edozein jokaldik balio du?. Umorezko filma da.

### «La piedra de la paciencia»

Ongarri zinekluba

21, eguztina: 21:30



### «La piedra de la paciencia»

Zuzendaria: Atiq Rahimi. Afganistan, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua, 2012. Iraupena: 102 min. Drama. Aktoreak: Golshifteh Farahani, Hamid Djavdan. Gerrak kaletutako herrialde batean, emakume batek bere bi semeak eta senarra zaintzeko lan egiten du. Izebak gomendio bat emango dio, bere kezka pazientziaren harriari kontatzeko, alegia. Bakarrizketa interesgarri bat hasiko da, eta oroitzapen tristeak etorriko zaizkio burura.

## GUARDIAK

### Egunez

9:00 - 22:00

### Gauetz

22:00 - 9:00

15	Barrenetxea	Barrenetxea
16	Ibañez	Yudego
	Goizez: Yudego	
17	Ibañez	Yudego
18	Garitaonandia	Garitaonandia
19	Etxeberria	Etxeberria
20	Fernandez	Garitaonandia
21	Yudego	Yudego

## BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) -  
Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384





# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behe  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalaieak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behe  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 531 847  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behe  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[pagoagasa@euskalnet.net](mailto:pagoagasa@euskalnet.net)

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behe  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behe  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20



# Gremioen GIDA

# VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit  
inoiz ez dela berandu  
irribarre polit bat  
edukitzeko

Ortodontzian  
espezialistak

RPS 49/12



**EIBAR**  
**San Juan kalea, 7**  
**943 82 18 85**